

POLITIKARIAK ETA EUSKARA

Urtxintxa soziologia taldea

POLITIKARIEK EUSKARAREKIKO DUTEN JARRERA EZ DATOR BAT EUSKAL GIZARTEAREN NAHIEKIN


LEHEN ONDORIO NAGUSIA: GIZARTEAREN IA ERABATEKO ADOSTASUNA

Hona inkestan jasotako emaitzak hitz gutxitan laburbilduta:

Hego Euskal Herriko gehiengo zabalak, gaur egun, politikari euskaldunek euskara gutxi hitz egiten dutela uste du eta euskalduntzeko ekimenak jorratzearen alde agertzen da. Politikari euskaldunak erdara hutsean hitz egitea gaitzetsi eta hauek euskaraz hitz egitearen alde ere agertzen dira gehienak (ia erabateko gehiengoa).


Zentzu honetan, gure inkestak eskeintzen dizkigun emaitzek ez dute zantzarako tarterik uzten. Honela, eta lehenbiziko grafikoan argi ikus daitekeen bezala, Hego Euskal Herriko biztanleetatik lautik hiruk (%73ak)¹ Gasteiz eta Nafarroako Legebiltzarretan politikariek euskara gutxi hitz egiten dutela uste dute, eta %5ak besterik ez du uste euskara asko hitz egiten dela.

1. Grafikoa: egungo politikarien euskararen erabilpenari buruzko iritzia. Emaidza orokorrak



Politikariak euskalduntzeko garaia da. Horixe uste du euskal gizartearen ia erabateko gehiengoak (%90ak), ondoko 2. grafikoan argi eta garbi jasotzen den bezala. Auzi honetan, beraz, gizartearen benetako adostasunarekin egiten dugu topo.


2. Grafikoa: politikariak euskalduntzen hasteko garaia iritsi al da? Emaidza orokorrak



Azkenik, gure iritiz berebiziko garrantzia duen gai bati buruz galdetu diegu inkestatuei. Hauxe da zuzendu genien galdera zehatza: «Zure ustez politiko euskaldun batek publikoki zein hizkuntzatan hitz egin beharko luke: euskaraz, espainolez ala bi hizkuntzetan?». Eta beraiek emandako erantzunak 3. grafikoan biltzen dira. Politikari euskaldunek egin beharko luketen erabilpenari dagokionez, iritzi desberdinekin topo egiten dugun arren, benetan azpimarragarria iruditzen zaiguna zera da: %92a politikari euskaldunak agerraldi publikoetan erdarara hutsean hitz egitearen aurka agertzen da, eta gehiengo oso zabal batek (%75ak) euskara gaztelania bezainbat edo gehiago erabili beharko luketela uste du. Aipagarria gertatzen da ere, kualitatiboki duen garrantziagatik, politikariak euskara hutsean aritzearen alde agertzen zaigun %14 hori.

1) Txosten honetan azalduko ditugun portzentaia guztiak, galdera bakoitzaren aurrean «Ez dakit» edo «Ez dut erantzun nahi» erantzuten dutenak kontuan hartu gabe daude kalkulatutak. Era berean, eta irakurketa erraztu asmoz, aipatu ehunekoak zifra osoetara borobildu ditugu. Inork emaitza gordinak ezagutu nahiko balitu, (hamarren batekin eta EDEEak ere kontuan hartuz) eranskintan aurki ditzake.

3. Grafikoa: Zein hizkuntzatan hitzegin beharko lukete politiko euskaldunek? Emaitza orokorrak (%ak)



Emaitza interesgarriak eta argigarriak inongo ezbairik gabe. Izan ere, emaitza hauek ageri-agerian uzten dute euskal gizartearen nahien eta euskal politikarien euskararekiko eguneroko jokaeraren artean dagoen tarte izugarria. Izenburuan esan dugun bezala, **Politikariek duten jarrera ez dator bat euskal gizartearen nahiekin**. Izan ere:

-Gaur egun politikariek euskara gutxi erabiltzen dutela uste dute gehienek.

-Politikariak euskalduntzen hasteko inongo plangintzarik ez dagoen bitartean, horren alde azalduko litzateke euskal gizartearen %90a.

-Gasteiz zein Iruñeko Legebiltzarretan 10 eskuhartzetik 9 erdaraz eta bakarra euskaraz diren bitartean, euskal gizartearen gehiengo politikari euskaldunek euskaraz askoz ere gehiago mintzatzearen aldekoa da (ikus berri dugun bezala, lautik hiruk euskara espainola adina edo gehiago erabili beharko luketela uste dute).

Hauk dira era laburrean gure inkestak eskaini dizkigun emaitza orokorrak. Jarraian, gizarteko talde edo sail desberdinek gai horiei buruz deritzotena ikertuko dugu.

BIGARREN ONDORIO NAGUSIA: GIZA TALDE EZBERDINAK ERE BAT DATOZ

Argi geratu da, beraz, gizartearen gehiengo zabalari politikariek euskaraz gutxi hitz egiten dutela iruditzen zaiola, politikariak euskalduntzen hastearen aldekoa dela eta politikari euskaldunek euskara gaur egun darabiltena baino askoz gehiago erabili beharko luketela uste duela. Gure azterketan aurrera eginez, aipa dezagun euskararen aldeko adostasun orokor honekin batera azpimarragarri gertatzen den bigarren ondorio nagusia:


Gizon zein emakume, zahar zein gazte, arabar zein gipuzkoar, nafar zein bizkaitar, bertako zein etorkin, erdaldun zein euskaldun², abertzale zein nazio sentimenduz espainol... sail hauen guztien barruan ere gehienak «bultzada euskaltzalearen» alde azaltzen dira.

Ondorio orokor hau, aurreraxeagoko 1. eta 3. tauletan bildu ditugun datuetan oinarritzen da. Taula hauetan gure inkestan egin genituen hiru galderei emandako emaitzak biltzen dira, inkestatuak zen-

bait aldagairen arabera sailkatuta. Honela, lehenengo taulan Hegoaldeko lau herrialdeetan jasotako emaitza zehatzak biltzen dira eta 3.ean gauza bera egiten dugu sexua, adina, jatorria, hizkuntz gaitasuna eta nazio-sentimenduaren arabera. Bi taula hauetan, argi eta garbi ikus daiteke, baten batek pentsa lezakeenaren aurka, euskararen aldeko borondatea ez dela euskaldunen, gipuzkoarren, bertakoen, abertzaleen... eta ez beste inoren ezaugarri. Aitzitik, gure azterketarako erabili ditugun aldagaiak banan-banan hartuta ere, sail guzti-guztietan da nagusi euskararen aldeko sentsibilitatea. Errealitate honek, aipatu adostasun zabalaren izaera sendo eta indartsua adierazten du. Badago, dena den, aipatu beharreko salbuespena: nazio-sentimenduz espainol sentitzen diren gehienek (%63ak) ez dute uste gaur egun politikari euskaldunek euskara gutxi erabiltzen dutela. Arau orokorraren aurkako salbuespen bakar honek, aurreraxeago ikusi ahal izango dugun fenomenoaren lehen pista eskeintzen digu: aztertzen ari garen auzian nazio-sentimenduz «espainolak sentitzen direnak» azaltzen dituzte jarrera negatiboak. Dena den, esan beharra dago beste bi galderetan (politikari euskaldunek erabili behar luketen hizkuntzaz eta politikariak euskalduntzen hasteko garaia ote den luzatu genizkien galderetan) espainolak sentitzen direnen artean ERE gehienek euskara ez baztertzearen aldeko jarrera azaltzen zutela.

Kontsentsuzko errealitate honen adierazgarri dugu 4. grafikoa; bertan politikariak euskalduntzen hasteari buruz giza taldeek duten iritzia jasotzen da, jarrera euskaltzaleenetik jarrera epelenetarako hurrenkeran. Esan dezagun beste galderei emandako erantzunak aztertzean ere, antzeko ondorioetara iristen garela: gizarteko sail guztietan gehiengo zabala osa-tzen dute egun politikariek euskara gutxi erabiltzen dutela uste dutenek, halaber, politikari euskaldunek euskara askoz ere gehiago erabili behar luketela uste dutenek ere.

4. Grafikoa: Politikariak euskalduntzen hasteko garaia dela uste dutenak, sailez sail (%tan)



Oharrak: NS-Nazio Sentimendua; Hizk-Hizkuntz Gaitasuna

2) Euskaldunez ari garean euskaradunez ari gara. Euskaraz ondo dakitenei buruz, hain zuzen ere.

Laugarren grafikoa ulertzeko ez da azalpen handiegirik behar: gizon edo emakume, gazte edo zahar, euskaldun edo erdaldun, etorkin edo bertako, eta abertzale edo espainolak sentitzen direnak, talde hauen guztien barruko gehiengo zabalek euskararen aldeko joera adierazten dute. Hori, aurrerago ikusi ahal izango dugu informazio xehetuagoa erabiliz. Oraingoz, argi utz dezagun oinarritzko ideia, hots, atal desberdinen barruan ere gaiaren inguruan dagoen adostasun zabalarena. Ideia hori sostengatzera eta indartzera dator aurreko grafikoa. Bertan ikus daitekeenez, lehenago esan bezala, politikariak euskalduntzeari ekitearen alde agertzen zaizkigu gizartearen sail guztiak, baita erdaldunen %84a, etorkinen %87a eta nazio-sentimenduari dagokionez «soilik espainolak» sentitzen direnen %67a ere. Hots, euskararen aurkako jarrerak kokatu ohi direneko giza sail horietan ERE, gehienak politikariak euskalduntzearen alde azaltzen dira.


Dena den, grafikoa aztertuta beste ideia bat ere ondoriozta genezake. Hots, giza talde desberdinek joera desberdinei eusten diotela aztertzen ari garen auziaren aurrean. Hala nola, euskaldunen eta erdaldunen artean, bertako eta etorkinen artean, eta abar, desberdintasun esanguratsuak topatzen ditugu auzi honi gagozkiola. Desberdintasun horiek azaltzen saiatuko gara hurrengo orrialdeetan.

HERRIALDEKAKO AZTERKETA: BIZKAIA, ARABA, NAFARROA ETA GIPUZKOAN EUSKARAREKIN BAT

Esan berri dugun bezala, lau herrialdeetan joera nagusi bera agertzen da: bai Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta bai Nafarroan ere, gehienek, politikariek euskaraz gutxi hitz egiten dutela uste dute, politikari euskaldunek euskara erabiltzearen alde agertzen dira eta politikariak euskalduntzeplangintzetan sartu behar direla deritzote.


Errealitate nagusi hori dagokion lehen mailan jarri ostean, has gaitezen herrialdeen arteko desberdintasunak ikusten. Izan ere, iritzi hauek lau herrialdeetan nagusi badira ere, euskararen aldeko joera herrialde batzuetan besteetan baino irmoagoa da. Honela, orokorrean Gipuzkoan agertzen da euskararen aldeko joera handiena, ondoren Bizkaian, hirugarrenez Araban, eta azkenik Nafarroan. Herrialdeen arteko desberdintasun hauek argi azaltzen zaizkigu 1. taulan eta taula horretako datuekin egin ditugun 5., 6., eta 7. grafikoetan.

5. Grafikoa: Politikoak euskalduntzen hasteko garaia iritsi al da? (herrialdeka)




«Gizartearen gehiengo zabalari politikariak euskaraz gutxi hitz egiten dutela iruditzen zaiola, politikariak hastearen aldekoa dela eta politikari euskaldunek euskara gaur egun darabiltena baino askoz gehiago erabili beharko luketela

6. Grafikoa: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko lukete politikari euskaldunek? (herrialdeka)



7. Grafikoa: Egungo politikarien euskararen erabilpenari buruzko iritzia (herrialdeka)



1. TAULA: ELKARRIZKETATUEN JARRERAK HERRIALDEAREN ARABERA

«Orain arte Administrazioaren euskalduntze prozesuaz hitzegiterakoan, funtzionarien euskalduntzea aipatu izan da soilik. Zure ustez politikoak ere (parlamentari, alkate eta zinegotziak), euskalduntzeko garaia al da?»

| | GUZTIAK | HERRIALDEA | | | |
|---|---------|------------|---------|-------|----------|
| | | GIPUZKOA | BIZKAIA | ARABA | NAFARROA |
| BAI | 90 | 95 | 94 | 85 | 76 |
| EZ | 10 | 5 | 6 | 5 | 24 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| (oinarria: inkesta kopurua) | (1.338) | (341) | (349) | (324) | (296) |
| «Zure ustez politiko euskaldun batek publikoki zein hizkuntzatan hitz egin beharko luke: euskaraz, espainolez ala bi hizkuntzatan?» | | | | | |
| EUSKARA HUTSEZ | 14 | 21 | 15 | 9 | 4 |
| EUSKARAZ, BAINA | | | | | |
| ESPAÑOLEZ ZERBAIT ERE BAI | 16 | 22 | 16 | 13 | 9 |
| BIETARA BERDIN | 45 | 51 | 40 | 5 | 44 |
| ESPAÑOLEZ, BAINA | | | | | |
| EUSKARAZ ZERBAIT ERE BAI | 17 | 2 | 22 | 17 | 27 |
| ESPAÑOL HUTSEZ | 8 | 4 | 7 | 9 | 16 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| (oinarria: inkesta kopurua) | (1.532) | (371) | (391) | (383) | (380) |
| Herritarren iritziz politikari euskaldunek egin beharko luketen euskararen batzbesteko erabilera -aurreko erantzunetatik abiatuta egindako kalkulua- (*) | 52,4 | 63,2 | 52,6 | 48,4 | 39,7 |
| «Gasteizko/Iruñeako Lege Biltzarrean, 10 interbentzio bakoitzeko 9 gazteleraz dira eta bakarra euskaraz. Zer deritzozu datu honi, euskara gutxi, asko, ala nahikoa hitz egiten dela?» | | | | | |
| EUSKARAZ ASKO | | | | | |
| HITZ EGITEN DA | 5 | 2 | 8 | 4 | 5 |
| EUSKARAZ NAHIKOA | | | | | |
| HITZ EGITEN DA | 22 | 10 | 24 | 22 | 34 |
| EUSKARAZ GUTXI | | | | | |
| HITZ EGITEN DA | 73 | 88 | 68 | 74 | 61 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| (oinarria: inkesta kopurua) | (1.423) | (350) | (364) | (351) | (364) |

Taula honetan jasotzen diren kalkulu eta ehunekoetan ez dira sartzen galdera bakoitzari erantzun nahi ez diotela edota zer erantzun ez dakitela esaten duten elkarrizketatuak.

(*) **OHARRA:** Herritarren iritziz politikari euskaldunek egin beharko luketen euskararen batzbesteko erabilera zehazteko, inkestatuek emandako jatorrizko erantzunak honela ponderatu ditugu: Espainol hutsean = % 0 euskaraz; Espainolez euskaraz baino gehiago = % 25 euskaraz; Bietara berdina = % 50 euskaraz;

Euskaraz espainolez baino gehiago = % 75; Euskara hutsean = % 100 euskaraz.

Honela kalkulatu ditugu goiko datuak. Adibidez, eta emaitza orokorretarako:

$(8 \ 0) + (17 \ 25) + (45 \ 50) + (16 \ 75) + (14 \ 100)$

----- = 52,4

100

Ikus daitekeen bezala, euskararen aldeko sentsibilitate orokorrak, gauzatze desberdina dauka herrialde bakoitzean, eta orohar, hurrenkera ber bera aurki dezakegu: Gipuzkoaren atzetik Bizkaia, Bizkaiaren ondoren Araba eta atzerago Nafarroa. Arau orokor honi salbuespen txiki bat aurkitzen diogu politikariek euskara zenbat darabilten baloratzeko eskatzean. Hau da, gainontzeko galderen arauari jarraiki, Gipuzkoan aurkitzen dugu euskara gutxi egiten dutela uste dutenen portzentaia altuena eta Nafarroan bajaran, baina kasu honetan Araba Bizkaiaren aurretik kokatzen da. Dena den, Araba eta Bizkaiaren arteko desberdintasun hau ez da estatistikoki esanguratsua, darabilkigun %95,5eko errore-margenaren barnean sartzen baita, eta ez dugu uste aipatu arau nagusia zalantzan jartzeko adinakoa denik.

Esan beharrik ez dago, herrialdeen arteko desberdintasun hauek guztiz logikoak direla, herrialde bakoitzaren barne-osaketa soziala, linguistikoa eta politikoa kontuan hartuta. Alegia, ez da harritzekoa, adibidez, euskaldunena den Gipuzkoa izatea gure hizkuntzaren berreskurapenerako jarrera sendoenak azaltzen dituen, ezta joera abertzaleak ahulen agertzen zaizkigun Nafarroa izatea euskararekiko atxikimendurik apalena azaltzen duena ere. Hala eta guztiz ere, txosten honetako irakurlea aspertzeko arriskupean, benetan aipagarria suertatzen zaiguna, hasieran azaldutako fenomeno delako berretsi behar dugu: logikaz epelenak beharko luketen (eta diren) herrialdeetan ere euskararen aldeko gehiengo zabalak topatzea.

Aurrekoaren harira, eta herrialdeen gaiarekin bukatzeko, ideia garrantzitsu bat erantsi behar diogu ora-in arte esandakoari: herrialde bakoitzaren errealitatea aztertuz, desberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu. Hala ere, ez dugu herrialdeetako barne-desberdintasun hauetan sakontzen hasteko asmorik. Izan ere (ikus 2. taula), joera eta erregularitasun berak azaltzen baitzaizkigu lau herrialdeetan: lau herrialdeen barruan euskararen aldeko jarrera tinkoagoa azaltzen dute orohar gazteek zaharrek baino, bertakoek etorkinek baino, euskaldunek erdaldunek baino, eta abertzaleek espainolak sentitzen direnek baino. Aurrerantzean esango ditugunak beraz, eta joera bezala, lau herrialdeetarako dira baliagarriak. Dena den, inork herrialde barneko berariazko azterketarik egin nahiko balu, horretarako informazio ugari aurkituko du 2. taula honetan eta are zabalagoa 7. eta 15. bitarteko eranskinetan.

2. TAULA: HERRIALDEEN BARNEAN, ZENBAIT ALDAGAIEN ARABERA ARAKATUZ

POLITIKOAK EUSKALDUNTZEN HASTEKO GARAIA IRITSI AL DA? (baiezko erantzunak ehunekotan)

| | GUZTIAK | | HIZKUNTZA | | JATORRIA | | NAZIO SENTIMENDUA | | ADINA | |
|-----------|---------|-------|-----------|---------|--------------|-------------|-------------------|----------|-------|--|
| | Eusk | ErdaL | EH | Kanpoko | Eusk. soilik | Esp. soilik | Gazteak | Zaharrak | | |
| HEGOALDEA | | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 90 | 98 | 84 | 91 | 87 | 99 | 67 | 91 | 91 | |
| GIPUZKOA | 95 | 98 | 90 | 96 | 94 | 99 | 83 | 93 | 95 | |
| BIZKAIA | 94 | 99 | 91 | 95 | 90 | 100 | 66 | 95 | 95 | |
| ARABA | 85 | 98 | 78 | 87 | 81 | 96 | 65 | 85 | 81 | |
| NAFARROA | 76 | 96 | 70 | 79 | 66 | 98 | 59 | 79 | 73 | |

HERRITARREN IRITZIZ POLITIKARI EUSKALDUNEK EGIN BEHARKO LUKETEN EUSKARAREN BATAZBESTEKO ERABILERA -KALKULUA- (*)

| | | | | | | | | | |
|-----------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|
| HEGOALDEA | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 52,4 | 76,1 | 41,2 | 56,0 | 42,1 | 67,2 | 29,9 | 56,1 | 47,9 |
| GIPUZKOA | 63,2 | 76,2 | 48,3 | 66,2 | 52,7 | 76,0 | 40,8 | 67,0 | 63,1 |
| BIZKAIA | 52,6 | 78,6 | 42,4 | 57,8 | 40,1 | 63,8 | 26,6 | 57,0 | 27,4 |
| ARABA | 48,4 | 72,5 | 43,3 | 50,9 | 42,5 | 59,1 | 36,3 | 50,6 | 40,77 |
| NAFARROA | 39,7 | 64,3 | 34,3 | 42,2 | 27,6 | 63,0 | 24,9 | 45,0 | 34,9 |

POLITIKO EUSKALDUNAK ERDARA HUTSEAN ARITZEAREN AURKA (EHUNEKOAK)

| | | | | | | | | | |
|-----------|----|-----|----|----|----|-----|----|----|----|
| HEGOALDEA | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 92 | 100 | 87 | 94 | 87 | 98 | 70 | 94 | 89 |
| GIPUZKOA | 96 | 100 | 89 | 97 | 90 | 99 | 84 | 99 | 95 |
| BIZKAIA | 93 | 99 | 90 | 95 | 89 | 98 | 66 | 94 | 90 |
| ARABA | 91 | 100 | 89 | 92 | 89 | 93 | 85 | 91 | 85 |
| NAFARROA | 84 | 100 | 80 | 87 | 69 | 100 | 61 | 91 | 80 |

POLITIKO EUSKALDUNAK EUSKARAZ BATI BAT EDO EUSKARA HUTSEAN HITZEGITEAREN ALDEKOAK (EHUNEKOAK)

| | | | | | | | | | |
|-----------|----|----|----|----|----|----|---|----|----|
| HEGOALDEA | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 29 | 69 | 13 | 34 | 16 | 53 | 5 | 34 | 25 |
| GIPUZKOA | 43 | 69 | 16 | 49 | 22 | 69 | 2 | 48 | 44 |
| BIZKAIA | 31 | 74 | 15 | 37 | 17 | 47 | 6 | 37 | 23 |
| ARABA | 21 | 55 | 12 | 25 | 11 | 38 | 9 | 26 | 14 |
| NAFARROA | 14 | 50 | 7 | 15 | 8 | 41 | 4 | 15 | 11 |

GAUR EGUN EUSKARA GUTXI ERABILTZEN DELA USTE DUTENAK (EHUNEKOAK)

| | | | | | | | | | |
|-----------|----|-----|----|----|----|----|----|----|----|
| HEGOALDEA | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 73 | 94 | 60 | 78 | 57 | 87 | 37 | 77 | 67 |
| GIPUZKOA | 88 | 97 | 77 | 92 | 74 | 97 | 56 | 92 | 85 |
| BIZKAIA | 68 | 91 | 58 | 75 | 51 | 80 | 25 | 72 | 63 |
| ARABA | 74 | 92 | 68 | 77 | 67 | 89 | 52 | 79 | 63 |
| NAFARROA | 61 | 100 | 53 | 65 | 42 | 98 | 33 | 72 | 49 |

(*) **OHARRA:** Herritarren iritziz politikari euskaldunek egin beharko luketen euskararen batzbesteko erabilera nola kalkulatu dugun jakiteko, ikus 1. Taulako oharra

SEXUA ETA ADINA: EUSKARA GAZTEA DA

Esan bezala, beraz, giza talde ezberdinetan orokorrean, gehienek politikariek euskararekin gehiago inplikatu behar dutela uste duten arren (euskara ikasiz eta gehiago erabiliz), talde hauen artean zenbait ezberdintasun aipagarri aurki ditzakegu. Atal honetan eta hurrengoetan, aldagai desberdinek izan dezaketen eragina ikertzen saiatuko gara.

Emaitzak sexuaren arabera aztertzerakoan ez dugu ezberdintasun handirik nabari, hots, emakumezko eta gizonezkoen erantzunek ildo beretsuak jarraitzen dituzte.

Sexuak ez bezala, adinaren arabera azterketak, aldiz, berezitasun aipagarriak eskeintzen dizkigu, gazteen artean orohar euskararekiko jarrera baikorragoa aurkitzen baitugu zaharren artean baino. Zahar eta gazteen arteko tartea ez da, egia esan, beste zenbait aldagairen arabera geroxeago ikusiko ditugunak bezain sakona: desberdintasun handiagoak eta esanguratsuagoak aurkitzen ditugu, adibidez, euskaldunen eta erdaldunen artean, edota bertako eta etorkinen artean, gazteen eta zaharren artean baino. Hala ere, adinaren arabera azterketa egitean estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ditugu.

3. TAULA (I): ELKARRIZKETATUEN JARRERAK SEXUA, ADINA, JATORRIA, HIZKUNTZ GAITASUNA ETA NAZIO SENTIMENDUAREN ARABERA

«Orain arte Administrazioaren euskalduntze prozesuaz hitzegiterakoan, funtzionarioen euskalduntzea aipatu izan da soilik. Zure ustez politikoak ere (parlamentari, alkate eta zinegotziak), euskalduntzeko garaia al da?»

| | GUZTIAK | SEXUA | | ADINA | | | | JATORRIA | |
|---|---------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|--------------------|---------------------|--------------------|
| | | Emak. | Gizon. | 15-30 urte | 31-45 urte | 46-60 urte | 60 baino + | EHan jaioa | Inmigrantea |
| BAI | 90 | 89 | 91 | 91 | 90 | 88 | 91 | 91 | 87 |
| EZ | 10 | 11 | 9 | 9 | 10 | 12 | 9 | 9 | 13 |
| GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 100 (1.338) | 100 (664) | 100 (664) | 100 (376) | 100 (374) | 100 (268) | 100 (317) | 100 (1.006) | 100 (322) |
| <i>«Zure ustez politiko euskaldun batek publikoki zein hizkuntzatan hitz egin beharko luke: euskaraz, espanyolez ala bi hizkuntzatan?»</i> | | | | | | | | | |
| EUSKARA HUTSEZ EUSKARAZ, BAINA ESPAÑOLEZ | 14 | 12 | 16 | 17 | 16 | 11 | 10 | 17 | 6 |
| ZERBAIT ERE BAI BIETARA BERDIN | 16 | 13 | 18 | 17 | 13 | 18 | 15 | 18 | 10 |
| ESPAÑOLEZ, BAINA EUSKARAZ ZERBAIT ERE BAI | 45 | 48 | 41 | 46 | 49 | 43 | 42 | 45 | 44 |
| ESPAÑOL HUTSEZ ZERBAIT ERE BAI | 17 | 18 | 17 | 14 | 14 | 20 | 22 | 14 | 26 |
| ESPAÑOL HUTSEZ GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 8 100 (1.532) | 9 100 (772) | 8 100 (748) | 6 100 (437) | 8 100 (410) | 8 100 (306) | 11 100 (375) | 6 100 (1.133) | 14 100 (388) |
| <i>«Gasteizko/Iruñeko Lege Biltzarrean, 10 interbentzio bakoitzeko 9 gazteleraz dira eta bakarra euskaraz. Zer deritzozu datu honi, euskara gutxi, asko, ala nahikoa hitz egiten dela?»</i> | | | | | | | | | |
| EUSKARAZ ASKO HITZ EGITEN DA | 5 | 4 | 6 | 5 | 4 | 5 | 8 | 4 | 11 |
| EUSKARAZ NAHIKOA HITZ EGITEN DA | 22 | 24 | 20 | 18 | 19 | 27 | 25 | 19 | 32 |
| EUSKARAZ GUTXI HITZ EGITEN DA | 73 | 72 | 74 | 77 | 77 | 68 | 67 | 78 | 57 |
| GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 100 (1.423) | 100 (713) | 100 (696) | 100 (422) | 100 (387) | 100 (282) | 100 (329) | 100 (1.073) | 100 (340) |

Taula honetan jasotzen diren kalkulu eta ehunekoetan ez dira sartzen galdera bakoitzari erantzun nahi ez diotela edota zer erantzun ez dakitela esaten duten elkarrizketatuak.

3. TAULA (II): ELKARRIZKETATUEN JARRERAK SEXUA, ADINA, JATORRIA, HIZKUNTZ GAITASUNA ETA NAZIO SENTIMENDUAREN ARABERA

«Orain arte Administrazioaren euskalduntze prozesuaz hitzegiterakoan, funtzionarioen euskalduntzea aipatu izan da soilik. Zure ustez politikoak ere (parlamentari, alkate eta zinegotziak), euskalduntzeko garaia al da?»

| | GUZTIAK | HIZKUNTZ GAITASUNA | | | NAZIO SENTIMENDUA | | | | |
|--|----------------|--------------------|--------------|--------------|-------------------|-------------|--------------|--------------|--------------|
| | | Erdald | Eusk ez osoa | Eusk | Esp soilik | Esp> eusk | Esp= eusk | Eusk> esp | Eusk soilik |
| BAI | 90 | 84 | 95 | 98 | 67 | 81 | 87 | 97 | 99 |
| EZ | 10 | 16 | 5 | 2 | 33 | 19 | 13 | 3 | 1 |
| GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 100 (1.338) | 100 (679) | 100 (322) | 100 (333) | 100 (158) | 100 (44) | 100 (250) | 100 (134) | 100 (626) |

«Zure ustez politiko euskaldun batek publikoki zein hizkuntzatan hitz egin beharko luke: euskaraz, espanyolez ala bi hizkuntzatan?»

| | | | | | | | | | |
|---|----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-------------|--------------|--------------|--------------|
| EUSKARA HUTSEZ | 14 | 5 | 11 | 39 | 2 | 1 | 1 | 9 | 28 |
| EUSKARAZ, BAINA ESPAÑOLEZ ZERBAIT ERE BAI | 16 | 8 | 21 | 30 | 3 | 7 | 10 | 17 | 25 |
| BIETARA BERTIN | 45 | 48 | 53 | 29 | 38 | 30 | 60 | 53 | 37 |
| ESPAÑOLEZ, BAINA EUSKARAZ ZERBAIT ERE BAI | 17 | 26 | 11 | 2 | 27 | 44 | 24 | 17 | 8 |
| ESPAÑOL HUTSEZ | 8 | 13 | 4 | 0 | 30 | 18 | 5 | 4 | 2 |
| GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 100 (1.532) | 100 (831) | 100 (352) | 100 (343) | 100 (212) | 100 (65) | 100 (289) | 100 (147) | 100 (660) |


«Gasteizko/Iruñeako Lege Biltzarrean, 10 interbentzio bakoitzeko 9 gazteleraz dira eta bakarra euskaraz. Zer deritzozu datu honi, euskara gutxi, asko, ala nahikoa hitz egiten dela?»

| | | | | | | | | | |
|--|----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-------------|--------------|--------------|--------------|
| EUSKARAZ ASKO HITZ EGITEN DA | 5 | 9 | 3 | 1 | 16 | 20 | 4 | 3 | 2 |
| EUSKARAZ NAHIKOA HITZ EGITEN DA | 22 | 31 | 19 | 5 | 47 | 48 | 25 | 13 | 11 |
| EUSKARAZ GUTXI HITZ EGITEN DA | 73 | 60 | 78 | 94 | 37 | 32 | 71 | 84 | 87 |
| GUZTIRA (oinarria: inkesta kopurua) | 100 (1.423) | 100 (740) | 100 (338) | 100 (341) | 100 (184) | 100 (54) | 100 (257) | 100 (135) | 100 (645) |

Taula honetan jasotzen diren kalkulu eta ehunekoetan ez dira sartzen galdera bakoitzari erantzun nahi ez diotela edota zer erantzun ez dakitela esaten duten elkarrizketatuak.

Hirugarren taulan ikusten denez, politikariek euskalduntze-ekimenak jorratu behar dituzten galdetzean ez dugu adinaren arabera desberdintasunik aurkitzen, baina politikariek egun euskaraz zenbat hitz egiten duten baloratzeko eta zenbat egin beharko luketen zehazterakoan, ezberdintasun nabariak aurkituko ditugu. Honela, 8. grafikoan ikus daitekeenez, egun, euskaraz gutxi egiten dutela uste dutenak gehiago dira gazteen artean zaharren artean baino (%67a zaharrenean artean eta %77a gazteen artean). Diogun bidenabar, lau herrialdeak alderatuz alde hau handiago dela Araban eta batez ere Nafarroan. Hau da, datu hauen arabera eragin handiagoa dauka adinak bi herrialde hauetan kostaldeko bietan baino.

8. Grafikoa: Egungo politikarien euskararen erabilpenari buruzko iritzia, adinaren arabera



Gehienak, politikariek, eskuhartzeak erdara hutsean egitearen aurka badauden arren, gazteen kasuan portzentaia honek gora egiten du, euskalduntzearen aldeko jarrera irmoagoa azalduz. Esan bezala, aldea oso sakona ez bada ere, datu horiek interesgarriak eta garrantzitsuak direla uste dugu gazteek etorkizunera begira duten garrantzia dela eta, finean, kontraesan eder baten adierazle baitira. Honen arabera, Europako hizkuntzarik zaharrena, euskara, «lau zahar eroren kontua» eta adinduen aldarrikapen eskusiboa izatetik urruti azaltzen zaigu. Euskara gaztea da... eta geroa euskararena.

EUSKALDUNAK KOKOTERAINO ETA ERDALDUNAK ERE EUSKARAREN ALDE?

Euskalduntasunak (eta erdalduntasunak) eragin ditzakeen desberdintasunei buruz, lehenik eta behin hauxe esan nahiko genuke: 3. taula arretaz aztertuz gero, agerian geratzen da guk erabilitako aldagai guztien artean

**«Gazteen artean orohar
euskararekiko jarrera
baikorragoa aurkitzen
baitugu zaharren artean
baino»**

hizkuntz gaitasuna dela erantzunetan desberdintasunik handienetarikoa eragiten dituen. Hots, euskaldun ala erdaldun izateak gehiago baldintzatzen du politikarien euskalduntzearekiko hiritarrek daukaten jarrera, gaztea ala zaharra edota bertakoa ala etorkina izateak baino. Noski, euskaldunek agertzen dituzte jarrera eta iritzirik «euskaltzaleenak».


Aurrekoa zehaztuz, zera esan daiteke hizkuntz gaitasunaren eraginaren benetazko pisuaz: gizartean dauden hizkuntzarekiko jarrerak «continuum» batean kokatuko bagenitu, jarrera euskaltzaleenetatik euskararen aurkako muturreko jarreretaraino eta, nola edo hala, «continuum» horretako «goiko muga» (euskararen aldeko jarrera sendoenen muga) ezartzen saiatuko bagina (horretarako euskararen aldeko jarreraren artean aldekoena gizartean zein sailek daukaten zehaztuz) lehen mailako garrantzia izango luke hizkuntz gaitasunaren aldagi honexek. Ez ordea «beheko muga» (euskararen aurkako jarrerena) izango litzatekeena zehazterakoan, horretan garrantzia handiagoa izango bailuke nazio-sentimendu (espainol)aren aldagaiak. Hau esateko 3. taulako datuetan oinarritu gara. Jo dezagun euskararekiko jarrera positiboak azaltzen dituzten sailetara: gaur egun politikariek euskara gutxi erabiltzen dutela diote gazteen %77ak, bertakoen %78ak, nazio-sentimenduz beren buruak euskalduntzat jotzen dituztenen %87ak, eta horien guztien gaineratik euskaldunen (euskara-dunen) %94ak. Hau argiagoa da oraindik politikari euskaldunek izan beharko luketen hizkuntz jokaeraz galdetzen diegunean: honela, euskara hutsean edo euskaraz erdaraz baino gehiago egin beharko luketela erantzuten du gazteen %34ak, bertakoen %34ak, abertzaleen %53ak eta euskaldunen %69ak!. Salbuespen bakarra, euskalduntzen hasteko garaia ote den galdetzen dugunean agetzen da, lehenagoko 4. grafikoan ikus zitekeen bezala. Kasu horretan «abertzaleek» euskaldunek baino jarrera irmoxeagoa azaltzen dute (%99 eta %98), baina esan beharrik ez dago desberdintasun hori ez dela inondik inora ere esanguratsua. Hirugarren taulan ikus daiteke, halaber, «beheko muga»n nabarmenago azaltzen zaizkigula espainolak sentitzen direnak, erdaldunak eta etorkinak baino.

Honen guztiaren atzean, euskal nazio-sentimenduaren hedapen historikoa batetik, eta euskararen bilakaera, bestetik ditugu, izan ere, bilakaera hori ez da inondik inora ere paraleloa izan. Alderantziz, eta ñabardurak ñabardura, azkeneko mende honetan euskal nazio-sentimendua hedatuz eta zabalduz joan da gure gizartean euskarak atzera egiten zuen garai beretsuan. Bilakaera horren ondorio da gaurko egoera eta zehazkiago, gaur egun sail desberdinen artean ikus ditzakegun loturak: izan ere, badakigu (beste ikerketek horrela erakutsi digute eta gure datuak ere hori frogatzen datoz) gure gizartean apenas dagoela nazio-sentimenduz bere burua espainoltzat jotzen duen euskaldun (PPko Karlos Iturgaitzen gisakorik). Ondorioz, espainolak sentitzen direnei buruzko datuak aztertzerakoan kontuan hartu behar da, hizkuntzaren eragina ere horrekin batera joango litzatekeela: azken finean 'sentimenduz espainolak' jartzen dugun tokian, gehienetan 'sentimenduz espainolak eta erdaldunak' jarri beharko genukeela. Alderantziz, badakigu nazio-sentimenduz beren buruak

euskalduntzat jotzen dituztenen artean badagoela erdaldun diren asko; badakigu, halaber, euskaldunen artean gehien-gehienak nazio-sentimenduz abertzale direla, eta beraz, euskalduna jartzen dugun kasu gehiengatik «euskalduna eta abertzalea» jarri beharko genukeela. Are gehiago, gure azterketan migrazio prozesuen eragina ere kontuan hartu ezker, eta helduen berreuskalduntzeak koantitatiboki etorkinen artean apenas eragirik izan duela kontuan hartuta, «euskalduna» diogun lekuan, gehiengatik «euskalduna, abertzalea eta bertakoa» esan beharko genukeela esan genezake.

Hau guztia kontuan izanda, ez da harritzekoa euskararekiko jarrerren hurrenkeran «goiko muga» hizkuntzak (euskaldun izateak) eta behekoa berri nazio-sentimenduak (espainol sentitzeak) jartzea. Aldagai biak (bai hizkuntza eta bai nazio-sentimendua) dira garrantzitsuak gizartearen baitako desberdintasunak azaltzeko garaian. Gure inkestak, tamalez, eta daukagun lagin eta azpilaginen neurriak direla eta, ez digu gehiago zehazteko eta sakontzeko aukera eskeintzen.

9. Grafikoa: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko lukete politiko euskaldunek? (hizkuntzaren arabera)



Gure txostenaren hari nagusira itzuliz, 9. grafikoan nabarmen azaltzen zaizkigu hizkuntzaren araberako desberdintasunak: euskaldunen eta erdaldunen artean desberdintasun oso handiak aurkitzen ditugu. Grafiko hau eta emaitza guztiak biltzen dituen 3. taulari begiratuta, ondorengo puntuak nabarmendu nahi ditugu labur-labur:

-Erdaldunen jarrera ez beligerantea. Alderantziz, erdaldunen artean gehienak (%87a) politikariek beraiek ulertuko ez duten hizkuntza batean (Euskaraz) hitz egitearen alde azaltzen dira, halaber, euskara erdara bezainbat edo gehiago erabili beharko luketela diote gehienek (%61ak).

3 Dena den, badakigu inmigrazio prozesuek Nafarroan izandako eragin koantitatiboa beste herrialdeetako baina dexente urriagoa izan zela.

4 Iturria: JOSE IGNACIO RUIZ OLABUENAGA eta M^a CRISTINA BLANCO: «La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 15 años de inmigración». 1994, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

-Euskaldunek hizkuntz komunitate trinkoa osatzen dute, hizkuntzarekiko jarrera teorikoei dagokionean behintzat. Euskaldunen artean lortutako emaitzak erabatekoak edo ia erabatekoak dira: euskaldunen %98ak esaten du politikariak euskalduntzen hasteko garaia dela, %94ak dio politikariek gaur egun euskara gutxi erabiltzen dutela eta %100aren iritziz politikari euskaldunak euskaraz hitz egiten hasi beharko lirateke (%100 horren barruan gainera %69ak euskara hutsez edo gutxienez erdaraz baino gehiago erabili beharko luketela dio). Erabateko datu hauek nabarmen azaltzen digute euskaldunen borondate argien eta egungo politikarrien ihardueraren artean dagoen leize sakona.

->«Ia euskaldunak» edo «Euskaldun ez osoak» (euskaraz zerbait jakin baina solasean natural jarduteko gai ez direnak) euskaldunen eta erdaldunen jarreraren arteko erdi aldean azalduko litzaizkiguke gutxi gora behera.

Laburtuz: erdaldun zein euskaldunen iritziak ez datoz egungo egoerarekin bat. Eta euskaldunen kasuan errealtatearekiko dagoen tarte hori ezin handiagoa bihurtzen zaigu.

ETORKINAK EZ ZAIKIGU INONDIK INORA EUSKALDUNTZEAREN AURKA AZALTZEN BAINA BERTAKOEN JARRERA IRMOAGOA DA

Jatorriari dagokionez, eta 10. grafikoari begiratuta, argi azaltzen da Euskal Herrian jaiotakoen eta kanpotik etorritakoen jarreraren artean dagoen desberdintasuna. Noski, euskararekiko atxikimendua sendoagoa da lehenengoan artean bigarrenaren artean baino. Datu guztiak, gainera, interpretazio honekin bat datoz. Esan beharra daukagu, gainera, gure datuek muga garrantzitsua dutela. Izan ere, jatorriari buruzko bitan egindako banaketa hau erabiltzeak (euskal herritarrak etorkinen eta bertakoen artean soilik banatuz) jatorriak izan dezakeen eragina gutxiestera eramán gaitzake. Jakin badakigu XIX. mendeko industrializazioarekin hasi eta jasaten ari garen krisi ekonomiko sakona hasi bitartean gure herriak jasan dituen inmigrazio prozesuak kuantitatiboki oso garrantzitsuak izan direla. Eta badakigu, era berean, prozesu horiek hamarkada luzeetan zehar izandako uhinetan gauzatu zirela 70ko hamarkadaren bukaeran eten ziren arte. Honek guztiak zeharo baldintzatu du egungo euskal gizartearen osaketa demografikoa. Gaur egun, adibidez, Baskongadetako biztanleria (zoritxarrez ezin izan dugu Nafarroari buruzko datu konparagarririk eskuratu³) hiru sail nagusitan banatu genezake jatorriaren arabera, eta sail bakoitzean biztanleen herena sartuko litzateke gutxi gora behera:

-Lehenengo herena (%33a) berta-bertakoek osatuko lukete. Alegia, Euskal Herrian jaio eta guraso zein lau aiton-amonak bertakoak dituzten biztanleak (euskal «aborigen»ak).


-Bigarren herena (%36a) bertan jaio baina guraso edota aiton-amonen artean kanpotik etorritakoren bat edo gehiago dutenek osatuko lukete.

-Hirugarren herena (%31a), azkenik, kanpotik etorritakoek (etorkinek) osatuko lukete⁴.

Gauzak horrela, hauxe da gure datuen muga: badakigu hiru sail horiek (eta sail horien barnean egin daitezkeen zenbait azpisailek) jarrera desberdinak azaltzen dituztela gure herriko zenbait gai politiko, sozial eta linguistikoaren aurrean. Eta badakigu oro har, bigarren herena osatzen dutenen jarrerak «aborigenen» eta etorkinen jarreraren artean kokatzen direla. Gure inkestan, tamalez, eta denboraren ekonomiak aginduta (telefonoz egindako inkestek ezin dute luzeegiak izan) ez genien elkarriketatuei beraien guraso eta aiton-amonon jatorriaz galdetu. Honen ondorioz, guk kategoria berean sartu ditugu lehenengo herenean eta bigarrenean sartuko liratekenak, eta honek galerazi egiten digu bi sail horien artean dauden desberdintasunak arakatzeko. Azken finean, zera eduki behar dugu argi: jatorriari buruzko galdera era zehatzagoan egin izan bagenu (elkarriketatuen arbaso zuzenen jatorriaz ere galdetuz), alde sakonagoa aurkituko genuen inongo zalantzarik gabe.

«Espainol sentitzen direnen artean ere, gehien gehienak (%67ak) politikariak euskaldundu beharra dagoela diotela eta politikari euskaldunen interbentzioak erdara hutsean izatearekin ez dagoela ados»

10. Grafikoa: Egungo politikarien erabilpenari buruzko iritzia, jatorriaren arabera.




Dena den, dauzkagun datuek argi azaltzen digute lehenago esan duguna, hots, bertan jaiotakoek etorkinek baino jarrera positiboagoa azaltzen digutela, eta argi azaltzen digute, halaber, zinez interesgarria iruditzen zaigun ondorengo ideia: zenbait medio politiko eta mediatikotan haizarratzen diren ikuspegi interesatuen aurka, «komunitateen arteko gatazka», hizkuntzaren auziari dagokionez behinik behin, ez da errealitatean esistitzen edo esistitzekotan ez da batzuek sinestarazi nahi diguten bezain sakona. Badago ondorio horretara iristen den ikerketa-lan interesgarria (Ruiz Olabuenagak eta Blancok egina, aipatu berri duguna), bertan inmigrazio-prozesuak jasan izan dituzten beste gizartearen aldean gurean benetako gatazka larririk egon ez dela (eta egon ez dagoela) diote. Gure datuek interpretazio hori birbaieztatuko lukete. Areago, gure kasuan, eta datuei erreparatuz, esan daiteke gatazka egotekotan gehiago egongo litzatekeela etorkinen baitan etorkinen eta bertakoen artean baino, etorkin gehien jarrerak ere ez baitira (teoria mailan apika) inondik inora ere euskara-

ren aurkakoak.

NAZIOTASUN-SENTIMENDUA: GUTXIENGO TXIKI BATEK EUSTEN DIE EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN AURKAKO JARREREI, ETA HAUEK ESPAINOLAK SENTITZEN DIRENEN ARTEAN KOKATZEN DIRA NEURRI HANDI BATEAN

Amaitzeko, dagokigun hauzian nazio-sentimenduak sor lezakeen eragina azaltzen saiatuko gara. Lehenago ere aritu gara honetaz, euskararekiko jarreraren «azpiko muga» (jarrera negatiboenen muga) ezartzerakoan aldagai honek duen garrantziaz mintzatu garenean. Honela, gizartean minoritarioak izanda ere oraindik orain aurkitzen diren euskararen aurkako jarrera setatienak bere burua «España»ren ideiarekin bat egiten dutenen artean kokatzen dira.

11. Grafikoa: Zein hizkuntzatan hitz egin beharko lukete politiko euskaldunek? (nazio sentimenduaren arabera)



zan ere, naziotasun-sentimendua aztertzerakoan ere ezberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu: euskaldun sentitzen direnen artean noski, espainolengan baino joera euskaltzaleagoa nabari da. Desberdintasun hauen adierazgarri dugu 11. grafikoa. Hala ere, azpimarratzekoa iruditzen zaigu espainol sentitzen direnen artean ere, gehien gehienak (%67ak) politikariak euskaldundu beharra dagoela diotela eta politikari euskaldunen interbentzioak erdara hutsean izatearekin ez dagoela ados gehien-go zabala (%70a). Honek ez du suposatzen esan berri dugunarekiko kontraesanik: espainolista guztiak ez dira euskararen aurkakoak, baina euskararen aurkako jarrerek pisu berezia dute espainolisten artean.

BUKATU DA, BUKATU DA, BUKATU DA... AKABO

Aurreko orrialdeetan zenbait ideia argi azaldu dira:

1.-Egungo politikariek duten jarrera eta portaerak ez datoz bat euskal gizartearen gehiengo zabalaren borondatearekin. Gizartearen gehiengoak politikariek euskara gutxi erabiltzen dutela, politikariak euskalduntzen has-teko garaia dela eta politikari euskaldunek euskara erabili beharko luke-tela uste du.

2.-Iritzi hauek nagusi dira hegoaldeko lau herrialdetan.

3.-Oinarritzko adostasun hori gizartearen alor guztietara hedatzen da, baita etorkin, erdaldun eta espainolak sentitzen direnetera ere.

4.-Euskaldunen komunitatearen baitan erabatekoak dira iritzi horiek.

Zenbait komunikabide eta iritzi-sortzailek errepikatzen dituzten leloen kontra, euskara ez da gutxiengo fanatiko baten patrimonio eta euskalduntzea gehiengo zabalaren gogo eta helburu bilakatu da gaur egun.

Egia esan, honako hau ez da inondik inora ere aurkikuntza berria. Aitzitik, ezin ahaz daiteke azken urteetan Euskal Herrian barna egin diren azterketetan⁵ nabarmen azaldu dela gizartearen gehiengo zabalak duen euskararekiko atxikimendua eta euskararen berreskurapenerako bidean pauso finkoak emateko borondatea.

Gure lanaren ekarpen apala (baina garrantzitsua) ondorengo litzateke: sentsibilitate euskaltzale hori politikarien eguneroko ekimenean eta hizkuntz jokabidean ERE gauzatu behar dela uste du euskal gizartearen gehiengo zabalak. Errealitatearekin alderatuta ezin argiago azaltzen zaigu gure politikarien eguneroko praktika gizartearen nahi eta gogoen oso atzetik kokatzen dela.

Emaitza hauek guztiak gure klase politikoari zer pentsatua (eta zer aldatua) emango diotelakoan gaude. Hala izan bedi.

⁵ Ikus, adibidez, eusko jaurlaritzaren «**Euskararen jarraipena**» eta nafar gobernuaren «**Euskara Nafarroan zertan den**» lanak.